

ARRASATE ^{PRESS}

1993ko Urriak 25

208. zenb.

VII. Itzulpen sariketa

EUSKALDUN

DEZAGUN

AEDko LUDOTEKA

EUSKARAZ MAITE ZARIT.

TB

EUN ALDAI DES 100

NOLA HELDU ZAIGU PUBLIZITATEA ETXERA?

Industria krisia bi egunetako greba deialdia


ARRASATE PRESS 200 ZENBAK

AED ARRASATE EUSKALDUN

AEDk hamar urte

AED ELKARTEA





Jose Aranzabal

Jose Aranzabal eta Fagor Sukaldeak 16 urte elkar lanean

S. Andres Auzoa - Tfnoa: 79 18 92



Gatzagan,
erdi erdian...
**ZUHAITZ
JATETXEA**



Tfnoa: 71 46 08
Astelehenetan itxita

VE ECUADOR


Bidaiak

Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

Memesa
79 42 22



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du

Testu-liburuak direla eta

1993.eko irailaren 26an gure Herrian argitaratzen den egunkari baten, Diario Vascon, hain zuzen, titulu erakarri bat ikusi nuen: "Eskola materiala eta testu-liburuak garestiagoak eta apenas gaurkotuak". Ikasurtearen hasieran gaudela kontutan izanik, eta Hezkuntza berrikuntzaren ateetan gainera, artikulua interesgarria izango zela pentsatu nuen eta irakurtzeari ekin nion. Gauza bera egingo zuten hamaika guraso eta irakaslek, ziurrenik.

Idoia Lasaren artikulua labor honen hasieran argitaletxearen liburu prezioaren igoeraz ari zaigu Maite Velez de Mendizabal, UCEko (Unión de Consumidores de España) ordezkaria Euskal Herrian. Dirudienez argitaletxe batzuk UCERi esandako igoera eta errealitatean izanikoa ez datoz bat, baina goazen aurrera ez baita haxe nik salatu nahi dudana alderdia. Gauzak horrela, eta artikuluekin jarraituz, zenbait argitaletxeren izenak aipatzen dira. Gure herrian gai honetan zertxobait dakienak argitaletxe batzuk faltan zeudela ikusi ahal izango zuen, hori gertatu zitzaidan niri ere. Halere, irakurtzea espero nituen argitaletxeak aurrerago agertuko zirelakoan, aurrera egin nuen artikulua bigarren gaiari helduz: testu liburuaren edukien gaurkotzea. Gai

honi dagokionez, zera dio: aztertutako argitaletxeetatik, bederatzi guztira, lau dira gaurkotu gabe argitaratu dituztenak. Puntu honetan, berriro ere, faltan bota nituen gogoan nituen argitaletxeak. Artikuluaren azkenengo zatian, berriz, Donostiako bi ikastetxetako zuzendariak mintzatzen dira testu-liburuak aukeratzeko kontutan izaten dituzten irizpideei buruz. Hauetariko batek lehen aipaturiko zerrendako hiru argitaletxe izen aipatzen ditu, besteak ez du izen komertzialik aipatzen.

Gauzak horrela — País Vasco sailean, Domingo, 26 de setiembre de 1993. El Diario Vasco 16. orrialdean, Gure Herriko informaziorik apenas aurkitu ahal izan nuen, hori bai, Idoia Lasari (DVko kazetariari) eta Maite Velez de Mendizabali (UCEko ordezkariari) nire protestarik biziena euskarako ereduera (D eta B) seme-alabak bidaltzen ditugun gurasoen izenean (Gipuzkoan %79.85 1991-92 ikasurteko datuen arabera), jatorriz bertakoak diren argitaletxeak eta testu-liburu originalak euskaraz argitaratzen dituztenak — gaztelaren itzulpen ez direnak — aipatu ere egiten ez dituztelako, hauek izanik, hain zuzen, gure seme-alabek gehien erabiltzen dituzten testuak. Beraz, nire iritzian, hobe zenuten Espainiaren edo gaztelera hutsez irakasten den beste Komunitate Autonomo baten izenpean argitaratzea zuen artikulua.

MATILDE SAINZ OSINAGA

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1.-20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantazu Loidi. **Kazetariak:** Luis Fernandez, Maria Agirre, Maider Egües. **Publizitatea:** Amaia Gabilondo (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Blanca Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udalako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Iñintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liher Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopi, Danel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Mario Egües. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 5.500. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.



ARRASATE PRESS
paper ekologikoan egiten da.

Azala: Jabier Ozaeta & Iban Herrarte

ARRASATE PRESS HARPIDETZAK



77 05 65



Alkoholarekin arazoak daukazu?

Agian,
"Alkoholiko Anonimoak" lagundu ahal dizute!!

Alkoholiko Anonimoak

3. areako Informazio bulegoa
(Gipuzkoa)
Tfnoa: 61 93 38



ZENBAKI Aholkularitza

**Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak**

Basabe industrialdea
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 88 75

Biteri Etorb. 15
ARRASATE
Tfnoa: 77 12 39

Zenbat eta gutxiago... hobeto!

Honelako ehundaka ehiza-postu, pertsona axolagabe eta zibilizatugabe bez betetzen dira urtero, ehiza izenaz ezagutzen den ganberrokeria eginaz, Euskal Herriko mendietan hilketa lotsagarrienak sortuz.

Parapetu hilara bukaezinak ugariegi dira Gipuzkoako gailurretan, gure zerua zeharkatzen saiatzen diren hegazti migratzaileen-tzat oztopo krudel bilakatu direlarik. Postu hoietako askok, beraien ehize araudietako zihurtasun arauak ere ez dituzte betetzen; hala eta guztiz Foru Aldundiko Nekazari sailak legaztatu egiten ditu, ingurugiroaren kontrako interes ekonomikoeri jokoa eginez. Labur esanda, legeztatzen dira baina ez dituzte izadiarekiko errespeto arauak betetzen. Garbi gelditzen da, sarritan ofizialtasuna eta justizia ez direla elkarrekin ibiltzen.

Lerro hauetatik, deialdi bat egin nahi diegu izadia maitatzen duten guztieri, mendizale, ekologista, eta gizarte osoari esanaz ez dezatela onartu urte-urte parapetu hauek erabili izaten jarraitzea. Bat egin faunaren arrazoiarekin. Hegazti migrariak hiltzeko eskubiderik ez du inork, gizatasunaren ondare izaten jarraitzen dutelako, nahiz eta oso legez-tatuak izan ehizarako bai-

menak, postuak eta horien subasta lotsagarriak.

DEBA GARAICO EGUZKI, EKI, MENDIA BIZIRIK ETA AMILOTX

Arrasaten Einstein-ik izaterik ez dago, estudiatzeko tokirik ez badago

Artikulu honen bidez liburutegiko zaintzaileen jokabidea lotsagarria dela adieraztea nahi dugu. Joan den egunean, arrazoirik gabe eta oso modu txarrean, liburutegitik kaleratuak izan ginen. Liburuak mahai gainean utzi ahala mehatxuka hasii zitzaigun, liburutegia liburuak kontsultatzeko baino ez dela esanez. Orduan zertarako kontsulta gela, teori-az behintzat liburutegi osoa kontsultatzeko bada? Hone-taz gain, aipatzekoa da jendearengan duten errespeto falta eta beraiek azaltzen du-ten handikeria jasatea ez da batere atsegina.

Liburutegian estudiatze-rik ez badago, jar dezatela Arrasaten horretarako toki apropos bat!

GAZTE BATZUK

Edozein keja, komentario, burutazio dauka-zula? Idatziguzu gutuna eta gusto handiz argitaratu dugu. Idatzi 20 lerrotik gora eta eman zure izena, N.A.M. eta telefonoa harremanetarako.

comercial
san juan

Garibai, 12
Tfnoa: 79 13 05

hikein

MARKO-JARTZEAK
Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84

**Basabe
jate txea**

**Menu eta afariak
Boda eta banketeak**
Industrialdea
ARETXABALETA


Tfnoak: 79 91 84 / 77 07 94

HIES EKIMENA

**Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.**

Tfnoa: 79 26 99

Zer esango zenioke AEDri 10. urtebetetze honetan?



Eduardo Bolinaga
Fagorreko langilea
(34 urte)

Ba aurrera segitzeko, ondo ibili dira eta horrela segitzeko.



Mertxe Guridi
Etxekoandrea (33 urte)

Zoriondu egingo nuke atera-
ratzen duen aldizkariagatik.
Eta udalekuak ekainean jar-
tzeko, uztailen beharrean.




Aimar Elorza
Ikaslea (16 urte)

Uste dut euskararen alde-
ko oso erakunde ona dela eta
zorionak 10 urte horiengatik.



Maribi Davila
Irakaslea (26 urte)

Ez dakit ba zer esan. Au-
rrera eta ondo segitzeko.




Juan Luis Lopez
Irakaslea (29 urte)

Euskaltzaindikoei esaten
zaien bezalaxe: ekin eta jar-
rai!



Leire Madina
Ikaslea (17 urte)

Orain arteko lana jarrai-
tzeko eta oso ondo dagoela
Arrasaten euskara talde bat
egitea, ondo dagoela ideia.




Antton Arregi
Ikaslea (17 urte)

Hamar urte bastante dira
jada, eta zorionak, aurrera jar-
raitzeko, ea beste hamar egi-
ten dituzten.



Arantxa Urrutia
Etxekoandrea (58 urte)

Oso oso ondo dagoela.
Gure mutikoa ere hor dabil
eta ederki. Egiteko orain arte
moduan eta gehiago.



LOGOPEDIA
ZENTRUA
ARRASATE

HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE



**Umeentzako
moda**

Ferrerias Kalea, 34
ARRASATE
Tfnoa: 79 97 86

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 79 53 00
 Iguaiatorioa 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 79 39 00
 (emakumeak) 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara 76 55 76

DYA
 Antzuola 76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak) 79 13 57
 (Txanda hartzeko) 77 03 46
 77 07 21
 Oñati 78 08 52
 Eskoriatza 71 44 52
 Aretxabaleta 79 74 58
 Aramaio (945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziazki 45 87 44

Udalzaingoa
 Oñati 78 04 11
 Bergara 76 14 69
 Arrasate 79 14 39
 Aretxabaleta 79 10 52
 Eskoriatza 79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate 79 71 99

Suhiltzaileak
 Udai taldea 79 09 00
 Udai taldeko suhiltzaile
 burua 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea 78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua) 79 09 00
 Elektrizitatea (iberduero) 79 05 81
 Gasa 900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak 79 12 22
 P.E.S.A. 79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta
 Erabiltzaileen Elkarte 79 87 77
 KIUB-OMIC 79 51 55

Monterongo liburutegia
 Monterron 77 01 05

15 OSTIRALA

ZINEA
 "Susurros en la oscuridad". 7etan
 eta 9.30etan.

OPERA
 "Bastian y Bastiana. Gaueko
 10etan. Elorrioko Arriola kul-
 tur aretoan.

NOR DA IVO POGORELICH?

Duela 8 urte izan genuen Arrasaten. Garai hartan eskeinutako kontzertuan jaso zen diru guztia, Ivo-k Arrasate Musikal akademiari eman zion, gaur egun oraindik erabiltzen diren instrumentuak erosi ahal izateko. Hemendik alde egin zuenean, berriz ere bueltatuko zela zin egin zuen eta aurten estatutik egiten ari den giran, Arrasatera etortzea eskatu du. Bere aita kroata da, eta ama serbiarra. Zazpi urte zituela musika ikasten hasi zen. Hamabi urterekin Moscura joan zen, piano ikasketak sakontzera. Klasikoen lanak jendeari ezagutaraztea izan da betidanik bere ardura handienetakoa. Ez zaió gaur egungo musika gustatzen, bere ustez musika, XVIII. mendean konposatu zena da. Bere jaioterrian, Yugoslavia ohian, bizi den gerrak asko kezkatzen du, bertako kultura galtzeko arriskuan dagoela ikusten baitu. Ivo Pogorelich-en pianoaz lagunduta eta Mikhail Pletnev orkestra zuzendariaren ardurapean, Errusiar Orkestrak Tchaikovsky-ren "Romeo eta Julieta" eta Prokofiev-en obra bat eskeiniko du. Ondoren eta pianorik gabe, Rimsky-Korsakov-en "Sheherezade" obra ere interpretatuko du orkestrak

16 LARUNBATA

ZINEA
 "El abogado del diablo". 7etan
 eta 10.00etan.

AKORDEOI KONTZERTUA
 Aretxabaletako akordeoi orkes-
 traren kontzertua. Aretxaba-
 letako elizan. Gaueko
 10etan.

17 IGANDEA

ZINEA
 "El abogado del diablo". 7etan
 eta 10.00etan.

MOUNTAIN-BIKE IBILALDIA
 Ibilaldia, goizeko 9etan aterako
 da Eskoriatzako plazatik. Ize-
 nematea ordu t'erdi lehen-
 go, 500 PTA ordainduz.

PINTURA ERAKUSKETA
 Pintore beasaindarren lanak
 ikusteko azken aukera. Ha-
 rresi aretoan.

ESKULAN ERAKUSKETA
 AED-eko EKIN emakume talde-
 ren lanak ikusteko azken
 aukera. Monterron erakus-
 keta aretoan. Monterrongo
 erakusketa aretoan.

KONTZERTUA
 Errusiako orkestra nazionala eta
 Ivo Pogorelich pianistaren
 kontzertua. Amaia antzokian.
 Arratsaldeko 8etan. Sarrera
 2.500 PTA.

KONTZERTUA
 Blues kontzertua, Louisianako
 "Short Fuse" taldearekin.
 Gaztetxean, arratsaldeko
 7.00etan. 300 PTA.



MARRAZKI ETA PINTURA IKASTARO ETA TAILERRAK

Monterrongo ganbaran. Irakas-
 lea Amaia Bengoa, arte ederre-
 tan lizentziatua. Hasiera, urriak
 18an. Matrikulazioa ostiralera-
 te egongo da zabalik eta 13.500
 PTA ordaindu beharko dira. Kla-
 seak, astegunetan 5etatik 8eta-
 ra eta larunbatetan 10etatik or-
 dubatera izango dira. Informa-
 zioa udaletxeko kultura departa-
 tamentuan, nahiz 790900 tele-
 fonora hots eginez.

GOARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 15
 Egunez: Español. Iturriotz, 17
 Gaeuz: Estella. Matxiategi, 5

Larunbata 16
 Egunez: Mozos. Pedro Deunaren.
 Gaeuz: Corcuera. Musakola.

Igandea 17
 Egunez: Mozos. Pedro Deunaren.
 Gaeuz: Irizar. Erquin.

Astelehena 18
 Egunez: Camacho. Oxirondo, 4
 Gaeuz: Amezua, Sta. Mareina, 32.

Astearte 19
 Egunez: Puy. Barrenkale, 25
 Gaeuz: Ruiz. Magdalena, 31.

Asteazkena 20
 Egunez: Gualiar. San Antonio.
 Gaeuz: Morales. Araba Etor. 17.

Osteguna 21
 Egunez: Estella. Matxiategi, 5.
 Gaeuz: Azkoaga. Ferrerriadi, 1.

18 ASTELEHENA**ZINEA**

"Susurros en la oscuridad". 7etan eta 9.30etan.

GOIKOBALU ETA BEETHOVENEN 9.a

Beethoven-en bederatzigarren sinfonia abestuko du Goikobalu abesbatzak, Radio Televisión Española orkestrarekin batera. Hilaren 19an Getxon eskeiniko dute kontzertua, 24ean berriz Arrasaten eta 30ean Santanderren. Abesbatzan 125 lagun egongo dira, hauetarik 90 arrasatearrak izango direlarik.

TAILA IKASTALDIA

Arrasateko udalak eta arrasateko tailaginen elkarteak antolatuta. Uriburuko kaleko tailerrean. Urriaren 23tik, abenduaren erdirarte. Iraupena 30 ordukoa izango da. Eskolak larunbatetan emango dira, astero lau ordu. Izena emateko, dei egin gaez telefono hauetara: 794079 (Felix) nahiz 792105 (Xanti).

**19 ASTEARTEA****ZINEA**

"Susurros en la oscuridad". 7etan eta 9.30etan.

HITZALDIA

"Hezi zeure burua osasunerako". Emalea, Ana Arrieta medikua. 3.30etan, AED elkartean.

HITZALDIA

"Emakumea eta autoestima". Emalea, Amaia Vazquez psikologa. 6.30tan, Aretxabaletako udaletxeko ganbaran.

ERAKUSKETA

"Ehiza eta arrantza". Monterron erakusketa aretoan. Arratsaldeko 6etaik 8etara.

KONTZERTUA

Goikobaluren entsaio orokor irekia. Amaia antzokian. Arratsaldeko 8etan.

20 ASTEAZKENA**NAFARROA OINEZ**

Urriaren 24ean, Altsasura joateko autobusak antolatuta ditu AEDk. Autobusa goizeko 9etan aterako da Zaldibaretetik. Izenematea hilaren 20a baino lehen egin behar da, Hire, AED nahiz Iturriotz tabernan. Prezioa, 800 PTA.

PET MATRIKULA ZABALIK


Cambridgeko Preliminary English Test egiteko matrikula zabalik dago. Izenematea Cim-en egin ahal izango da, abenduaren 11a baino lehen. Azterketa abenduaren 11n egingo da.

HIRUGARREN MUNDUAREN ALDEKO EKINTZAK

Arrasateko hirugarren mundu taldeak antolatuta. Hilaren 16tik 23ra, San Frantziskoko beheko lokalean, Peruko artisautzaren erakusketa eta salmenta izango da. Lan-egunetan arratsaldeko 5etatik 7etara eta larunbat-domeketan 5etatik 8etara egongo da zabalik. Bildutako dirua El Callao ko garapen proiektuarentzat izango da. Hilaren 21, 22 eta 23an diapositiba erakusketa egongo da portaloian eta gaez.

21 OSTEGUNA**UNIBERTSITATERAKO SARRERA**

Famili eta gizarte heziketarako zentruan. 25 urtetik gorakoentzat. Arratsaldeko 6.30etatik 8.30etara



LARUNBAT-ERO

TXATXILIPURDIREKIN JOLASERA

AEDko txatxilipurdi taldeak, Arrasateko 1. mailatik 6. mailara arteko neska-mutikoentzat hainbat ekintza antolatu ditu. Ekintzak urriaren 23an hasi, aste santuak arteko larunbat guztietan burutuko dira. Bi txanda egongo dira; goizez hamarretatik ordu batera, eta arratsaldez hiruetatik seietera. Helburua, umeari kulturaz eta hizkuntzaz euskaldunagoa den giroa eskeintzea da. Inskripzioak, umea ikasten ari den ikastetxean edo AED elkartean. Prezioa 1.500 PTA.

"HAUR LITERATURAZ" IHARDUNALDIAK GASTEIZEN

Urriaren 18tik 22ra Floridako kultur etxean, arratsaldeko 7.30tan. Aztertuko diren gaiak: haurrentzako poesia, ertainetako ikasleen gustu eta disgustuak, haur literatu-

raren argitalpen gintza, tradizioa eta haur modernitatearen haur literatura. Azken egunetan mahainguru bat izango da, "Zarauztik datorren idazle bat naiz ni" gaia aztertuko delarik

BESAIDEKO IRTEERA


Besaide mendi elkarteak mendi irteera bat antolatu du urriaren 24rako. Ibilbidea honako hau izango da: Izarra, Arangatxa, Marinda eta Andagoian. Izenemateko epea ostegunerarte egongo da zabalik, 7.30etatik 8.30etara egin ahal izango da, Besaideren egoitzan.

Pankartarik ez udaletxean

Udaletxean kartelak eta pankartak jartzeko debekua onartu zuen joan den astean udalbatzak. EAJren mozio baten ondorioz, Herri Batasunaren aurkako botoz eta EAren abstentzioaz, onartu zen erabakia. Xabier Zubizarreta alkateak mozioaren aurkako iritzia azaldu zuen. "Arazoa ez dira pankartak baizik eta pankartetan azaltzen direnak. Mezulari hiltzea litzateke arazoak azaltzen dituenari trabak jartzea, arazoari aurre egin gabe", esan zuen alkateak bere jarrera azaltzerakoan. Debekua udaltzaingoak jarri beharko du praktikan, udaletxeko balkoian pankartarik jartzera inor sar ez dadin. Mozioan onartu zenez, gainera, bulego orduetatik kanpo udaletxera sartzen den jendea zaintzeko eskatzen zaio udaltzaingoari.

Zerga municipalen igoera

Datorren urterako herritarren zerga eta tasa municipalen igoera onartu du Udalak. Zergetan,



Zinegotzi baten agurra

Pedro Mari Ruiz de Azuak, azken bi hauteskundeetan Eusko Alkartasunako zerrendaburu izan denak, bere zinegotzi kargua utzi egin du, arrazoi profesionalak medio. Bere tokia Juan Antonio Barriocanalek beteko du (argazkian). Barriocanal, 42 urtekoa, San Andres auzoko alkate izandakoa da, Ederlan enpresan egiten du lan eta maisu industrialia da. 6. zegoen EAKo hauteskunde zerrendan, baina bere aurretik zeuden Igor Altunak eta Kontxi Etxebarriak berari utzi diote tokia. Dena den, Ruiz de Azuaren bozeramaile papera Isabel Gallastegi zinegotziak beteko du aurrerantzean herriko politikan. Joan den ostiraleko plenoan izan zen Ruiz de Azuaren despedida, eta bi hitzetan laburtu zuen bere agurra EAKo politikariak: "Eskerrak, eta barkatu".

ondasunen gaineko kontribuzioa eta jardueren gaineko zergak mantendu egiten dira, eta % 4 igoko da ibilgailuen zirkulazio zerga. Tasetan, zaborrena % 3 igoko da, eta % 10 urarena. Azken igoera nabarmen honek badu bere

arrazoia: datorren urtetik aurrera orain arte doan jasotzen genuen zerbitzu bat, Urkulutik ura ekartzea, ordaindu egin beharko du udalak. 70 milioi PTA kostatuko da uraren ekarrea, eta horregatik igoko da faktura. Hala ere, Gi-

puzkoako ur partzuergoaren ustez, uraren prezioa metro kubikoko 80 PTAtan kokatu beharko litzateke, eta Arrasaten, igoera eta guzti, 43 PTAtan dago oraindik. Tasa municipalen en alor berean, herriko kiroldegietako erabiltzaileen tarifa berriak onartu ziren.

Mondra aurrera

Aste honetako ARRASATE PRESSEK kirol atalik ez duenez, herriko kirol talde nagusiaren emaitzak komentatuko ditugu hemen. Mondrak bere denboraldi bikainarekin segitzen du, eta asteburuan Erandion 1-2 eta Atxabalpen Getxori 2-0 irabazi ondoren, 3. dago 3. mailako sailkapenean. Hala ere, astearteko partiduan nahiko estu ibili ziren arrasatearrak, azken 10 minutuak arte 0-0 egon baitzen markagailua Getxoren aurka.

JAIOTZAK

- Jon Zubizarreta Bolinaga. Urriaren 1ean.
- Leire Aranburu Pinillos. 4ean.
- Jokin Arakistain Gorosabel. 4ean.

HILDAKOAK

- Ignacio Aginagalde Arana. 84 urte.

Autokarabanak alokatzen dira!

AMETS
TAILERRAK

Tfnoak: 78 19 50 / 78 25 92 OÑATI

- HERGO eta HOBBY karabanak.
- RIVIERA auto-karabanak.
- SANGO erremolkeak.
- Kanping eta karabana guztientzako ordezkoi piezak eta osagarriak.

FAGOR

TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

AED 10 urte



Aurrera bidean

Agur adiskideok:

AEDrentzat pozgarria da hamargarren urtean osasun ederrarekin aurkeztea.

Atsegina da euskara eta euskal kultura garatzeko, zabaltzeko eta gozatzeko euskalzaleon helburuekin bateginik, egunez egun, adiskide, bazkide eta lankide gehiagoren partaidetzarekin kontatztea.

Itxaropentsua da euskararen erabileraren ugaltza antzematea azterketek dioenez, baita gutako

bakoitzak kaleetan nabaritzea ere.

Euskalzaleok ikastola bidez euskararen ezagupenari eman genion lehentasuna eta azken urteotan erabilera ziurtatu nahi dugu Euskara Elkarteak bide direlarik.

Aurrera goaz zalantzarik gabe, eta norberaren bultzada denez abiada indartu dezakeena, obatu zure parteari.

**JOXEMARI MUJICA
AEDKO LEHENDAKARIA**



HIZKUNTZAK IKASTEA NAHI DUZU?

- Profesionalitatea
- Kalitatea
- Seriotasuna
- Esperientzia
- Emaizak

CIMen horren garantia eskaintzen dizugu.

HURBILDU ZAITEZ GUREGANA!

CIM A.C.E.I.G. ren kide da (Gipuzkoako Hizkuntza Eskolako Elkarteak)

ARRASATE: Araba Etorb., 4 Tfnoak: 79 01 32 / 79 65 54
OÑATI: Olakua, 14 Tfnoa: 71 60 00

“PAL”

**burdindegia,
brikolage
eta tresneria**

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99

HIES EKIMENA

**Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.**

Tfnoa: 79 26 99



Onduline



TXOMIN HERIZ

**eraikuntzarako
materialak**

Biltegia: Bidekruzeta, 1 Tfnoa: 79 23 18
ARRASATE



PAZI-OLA S.A


GALDARAGINTZAKO LANTEGIA


Zaldispe kalea, 2
ARRASATE Tfnoa 79 29 94

Es Lu

ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
ARRASATE





Egindako lana handia izan delakoan ados zeuden mahaikideak baina optimismo larregi ere ez da komeni.

Mahaingurua: Lorpen eta hutsuneak neurtzen

AED ondo ezagutzen duten hiru lagun, Bittori Etxeberria, Julen Arexola-Leiba eta Iñaki Mendiguren, jarri genituen mahai baten inguruan, 10 urte hauetako jarduna komentatzen. Hona, bertan azaldutako iritzietako batzuk.

Julen Arexola-Leiba irakaslea, Iñaki Mendiguren itzultzailea eta Bittori Etxeberria, Ekin emakume taldekoa, bildu genituen elkarrizketan, grabagailua erdian. Kazetariaren galderetan beharrez, mahaikideen komen-

tarioetan finkatuko gara.

SORRERA

Bittori.— Esango nuke bi elementu bizi genituela garai haietan. Euskarazko klaseak ematen genituen irakasleen artean, batzuen artean behintzat, bazegoen kezka bat. Euskaldun berriak sortzeko ematen genituen klase horiek eta gure kezka zen gero nola praktikatu. Ikusten genuen kalera irteten zutenean ez zeukatela posibilitaterik askotan, hori genuen eguneroko aitagurea. Orduan, joan ginen pentsatzen txoko bat edo behar genuela, euskaldunbe-

*“Beste
segurantzaz
bat lortu
dugu
euskaldunok,
beste
kontzientzia
bat”*

**BITTORI
ETXEBERRIA**

*“AEDren
baitan ez da
inoiz botazio
bat egin, ezta
momentu
latzetan ere”*

JULEN

AREXOLA-LEIBA

rri hauek, herriko euskaldun-zaharrekin topatzeko, elkarrekin hitz egiteko. Hori alde batetik. Hori buruan zela, gogoratzen naiz UNEDek soziolinguistika ikastaro batzuk antolatu zituela. Han izan ginen batzuk, nahiko interesgarriak izan ziren eta nahiko kezkatuta atera ginen. Eta pentsatu genuen, zergatik ez Arrasaten horrelako zerbait antolatzea jendeak kontzientzia har dezan? Eta handik.

Iñaki.— Esango nuke bide eginez egin zela, ez genuela eredu bat, ispilu bat begiratzeko eta esateko, gauzak horrelaxe egin behar dira. Plan baten arabera ez genuen jokatu, baizik eta hasi eta kezka bati jarraituz poliki-poliki joan. Horrek esan nahi du beste batzuek ere berdin egin dezaketela. Gainera, tartean sortu diren ereduak baliagarri izateaz aparte. Hasieratik egon zen taldean jende bat, dinamika berri batekin lan egin zuena. Esaterako, Txomin Otamendi. Gero, ba, erakundeetara eta agintariengana joateko eta mugitzeko beste tonu batean planteatu zituen gauzak. Uste dut orduan ez geundela ohituta. Beste ezaugarri garrantzitsu bat izan zen oso elkarte zabal sortu nahi izatea, ez agian erasokorra, baizik eta oso ire-



Bittori Etxebarria amezketarra eta Iñaki Mendiguren ezkiotarra, AED sortzen lagundu zuten "kanpotarretako" bi.



kia, oso zabala. Hori hasieratik zegoen garbi.

Julen.— Funtsean Euskal Herrian Euskarazetik sortu zen zer hau mamitzeko ideia, eta EHEren baitan senar-emazte batzuen artean batez ere. Horiek Iñaki komentzitu zuten, eta honek sartu zituen inork baino ordu gehiago hasiera batean. Eta gauza inportante bat: Arrasaten kanpoko jenderik izan ez balitz, arrasatearren artean seguru asko ez genukeen elkarterik sortuko. Batez ere, garai hartan, gaur egun ez dakit, herriko jendea eta euskaltzaleak politikak atomizatuta, elkarren artean proiektu integratzaile bat aurrera eramateko ez ziren gauza. Orduan, kanpoko jendea, hartu Txomin, Joxe Etxebarria, Mikel Lezamiz, hartu Bergarako Xabier Olabarria, begiratu hasierako momentu hartan ibiltzen zirenak. Hor lortu zen Arrasateko Patxi Goikolearekin eta Arrasateko betidaniko euskaltzaleekin lotura eta horrek eman zuen datu inportante bat:

bizpahiru hilabetetan 300 bazkide egin ziren elkarte honetan.

URTE ZAILAK

Julen.— AEDren lehenengo paperak ikusita, elkar-tea sortu aurretiko paperak ikusita, behin eta berriz errepikatzen da udaletxearekiko elkarlana. Orduan euskara batzordea sortu gabe zegoen eta euskara gabinetea ere bai, askotan pentsatzen dut Jose Felix (*Diaz de Tuesta, udal euskara teknikaria*) garai hartan egoten zela udaletxean, langileek kafea hartzen zuten tokian. Sartzen zinen udaletxean eta ez zenekien Jose Felix non zegoen ere. Orduan, lehenengo momentuan esan genuen, herriaren partehartzerik gabe normalizaziorik ez dagoela ez hemen eta ez inon, baina lehen momentutik esan genuen udalaren azpikontratazio bat ez ginela izango. Zaborraren adibidea jartzen genuen: Cespak zaborrak jasotzen dituen moduan, udalak berari utzita, euskara-

rena ez da udalak esku pribatuetan uzterik. Bere ardura bat da, eta bere lana da mugimenduari bide egitea.

Iñaki.— Orduan zera zen alderdi politikoen pentsakera: euskara, kultur eta kirol batzordean. San Andresko xake elkartearen pareko zen euskararen inguruan lanean zebilen elkarte bat. Gure agintarien pentsakera horreraino iristen zen: euskarari lagundu egin behar zaio edozein kultur ekintzari lagundu behar heinean, eta hortik aurrera, etzazue gerra eman. Zenbat eta gerra gehiago eman, egunero pelmada ematen, orduan eta okerrago ikusiak. Baina nik uste dut asmatu zela epoka txar hura ere gaintitzen sufrituta, elkarte barruan egon zela batasun ikuspegi bat.

Julen.— Momentu horietan ere, hor egon zitezkeen estrategiekin eta, botaziorik ez zen egin. AEDren baitan ez da inoiz botazio bat egin, ezta momentu hartan ere. Beti topatu dugu gure artean, egon zitezkeen zeren artean erdibi-

*“Arrasaten
kanpoko
jenderik izan
ez balitz,
arrasatearren
artean seguru
asko ez
genukeen
elkarterik
sortuko”*

JULEN

AREXOLA-LEIBA

de bat, denok konforme jokatzeneko. Ez dut uste inork utzi duenik AED haserre hartu diren erabakiekin, bai ordea AEDko jendeak talde politikoak utzi talde politikoek ez zizutelako kasurik egiten.

LORPENAK

Iñaki.— Garrantzizko gauza bat izan da giro bat sortu dela, beste batzuek ere AEDren inguruan edo kanpoan gauzak egiten has daitezten. Giro bat sortu da poliki-poliki. Dinamika bat sortzen joan da, hor dago Hitzarmenarena. Komunikabideen inguruan ere, elkartzen da hor, jende bat, AEDren inguruan zebilena edo agian kanpoan zebilena. Baina bueno, sortu da eta bere dimentsioa lortu du.

Julen.— Uste dut kontzientzia pertsonalak eraginda bildu zela hor jendea, oso kontzientzia pertsonal bateratuak bildu zirela. Dinamikak aurrera egin ahala eta zerbitzuak eskaini ahala, orduan giroak laguntzen du errazago integratzen. Hau da, pertsona baten kontzientzia horrekin, gizarte mailan isladariki izan bitartean, oso zaila da erabilera areagotzea. Beste gauza bat da sozialki giro hori aldatu egiten denean. Batzuek pauso hori egoera txarrean ere emanda geneukan, eta ez dut esango orain egoera ideala denik, baina bai errazagoa dela gaur egun Arrasaten euskaldun jokatzea duela hamar urte baino. Begibistakoa da.

Bittori.— Esango nuke beste nortasun bat edo beste segurantz bat lortu dugula euskaldunok. Beste kontzientzia bat: Nik eskubide osoa daukadala udaletxera joan edo beste edozein tokitara joan eta euskaraz mintzatzeko.

HUTSUNEAK

Julen.— Euskaldun berrien gaian, gaur da eguna oraindik ere salto hori ez dena egituratu. Euskaldunberriak,

euskaltegitik ateratzen direnak, batzuk etorriko dira baina hor egiteko handi bat dago (...). Erdaldungoaren tema ere hor dago. Hori beldurra eman digun beste gai bat da. Ez dut esaten kontuz jokatu ez dugunik, ze kontu ikaragarria eduki dugu, ez dugu inoiz hanka sartu edo ez dugu hanka sartu nahi izan behintzat. Baina oraindik hurbiltzeko ere uste dut beldurra daukagula. Kontsentimendutik komentzimendura eraman behar ditugu eta horretan ere aintzindari izatea dagokigu.

Iñaki.— Optimismo giroa aipatzen dugu. Ni orokorki hain optimista ez naiz. Pentsatzen dut AEDk 10 urte hauek egin duena bai izan dela positiboa. Egin ez balitz orduan ikusi behar genukeen non eta nola egongo ginatekeen. Egindako guztia izan da beharrezkoa eta ona, baina egoerak ez du kualitatiboki hain aldaketa handia egin, zeharo optimismoan jausteko. Beste asignatura bat, zintzilik daukaguna, helduen alfabetatzearena da, euskaldunzaharrena.

Bittori.— Emakumeen munduan ere uste dut oraindik kriston lastrea daukagula. Ez dakit, erdaraz hitz eginda kultura gehiago bagenu bezala da. Gizonezkoen artean gehiago hitz egiten da euskara emakumeen artean baino. Kanean, adibidez.

Julen.— Nire ustez gaurko egoera zero da. Ematen du 10 urte eta ez dakit zenbat egin dugula baina etor daki guke datorren urtean belarriondoko bat eta berri ere... Perspektiba aldetik pentsatu behar dugu gaurkoa zero dela. Eta perspektiba horretatik lortu behar dugu elkarlana sakontzea, baina ez gaurkoarekin konformatzea.


Iñaki.— 10. urteurrena ospatzea ondo dago, baino nik eta jende askok uste dugu AEDk behar duela halako hausnarketa bat. Bai guk eta bai aipatu ditugun erakunde

“Egindako guztia izan da beharrezkoa eta ona, baina egoerak ez du kualitatiboki hain aldaketa handia egin, zeharo optimismoan jausteko”

**IÑAKI
MENDIGUREN**

guztiek, eguneroko aktibismo horretan geldialdi bat egin eta patxadaz elkartu eta hausnartu orokorki herrian dagoen egoera, prozesu batean ikustea zer aurreratu eta zer egin dezakegun. Baina orain AED mila gauzatan sartuta, euskaltegieta klasez honaino, eskolekin beste horrenbeste. Beti izan dira positiboak horrelako hausnarketak, baina azken urteetan ez da egon horretarako aukerarik.

Bittori.— Hor 800 bazkide egongo gara. Orduan, batzorde batean bazaude, gauzak hurbiletik bizi dituzu eta barruan bizi dituzu. Baina baldin bazaude inguruan edo, ez dago konexio hori, nik behintzat ez dut topatzen eta behin baino gehiagotan pentsatu izan dut. Uste dut falta dela halako formazio bat, ez dakit hitza egokia den, baina motibazio bat edo zerbait falta dela. Gauza asko egin dira baina oraindik gauza asko geratzen dira eta ikuspegi zabalago batekin, hausnarketa sakonago bat eskatuko nuke.



Inoiz inork haserre AED ez duela utzi gogoratzen digu Arexola-Leibak.

Futbito Txapelketa ZALDIBARRREN



Zerbaitegatik dira favorito

Bigarren jardunaldia jokatu denerrako ikusten da dagoeneko favorito txartela gainean daramaten talde horiek aurreko postuetan kokatzen ari direla; zerbaitegatik dira favorito, azken batean. A taldean, taularen goikaldean azaltzen dira dagoeneko, golaverageari esker, Trikitikoak, iazko txapelduinak. hurbiletik, iazko azken txapelketa faseetan ibilitako Suministros

Ugarte edo Arlutz ikusten ditugu. B taldean ere, Argi Ibili serio-serio taulan nagusi; C taldean bi nagusi denen gaintik (Fosforos eta Los Heredia), eta D taldean ere ez da harrizkoa AC Surcos edo Carburros hor ikustea. Sorpresen artean, *errebelazio* direlako horien artean, Kriskibalda, 4 puntu eta gol bat bakarrik aurka, Arlutzek soilik berdintzen duen marka.



DEBA
GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Eros dezaket pisu bat hirierdian, lasaia, eguzkitsua, bistekin, 3 logelarekin, eta trasteleku eta guzti hornitua, 1,5 miloi pezeta eta 45.000 PTA hilero baldin ba dauzkat?

BAI HORIXE!!

HELBIDE BERRIAN AUKERA BERRIAK

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
TRIKITI	2	2	0	0	13	3	4
SUM. UGARTE	2	2	0	0	14	4	4
ARLUTZ	2	2	0	0	7	1	4
BIZKORRAK	2	1	1	0	7	2	3
IKATZ	2	1	1	0	8	6	3
JEY JULIWER	2	1	1	0	5	4	3
ANBOTOSTE KT	2	1	0	1	7	5	2
ALLA KUIDAUS	2	1	0	1	8	7	2
BERANGO SUKAL	2	1	0	1	5	5	2
EUSKAL INDARRA	2	1	0	1	4	4	2
WHISK. LINDE	2	1	0	1	7	8	2
ETXE MOBILIARIO	2	1	0	1	4	6	2
ZOTZ	2	1	0	1	7	10	2
SOKOAKOAK	2	1	0	1	6	10	2
FRAGUEL GOL	2	0	1	1	2	3	1
RESAKAS	2	0	1	1	6	8	1
KOKKAS	2	0	1	1	4	6	1
BAYERN LENITZ	2	0	0	2	3	7	0
UGLYS TXINATO	2	0	0	2	5	10	0
AUF DEM KOFFER	2	0	0	2	2	12	0

C taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
FOSFOROS	2	2	0	0	21	2	4
LOS HEREDIA	2	2	0	0	10	4	4
ARRASATE KRIST.	2	2	0	0	11	6	4
NABARROS	2	2	0	0	8	3	4
KIRTEN TROPEL	2	2	0	0	7	4	4
FOTO IMAGEN	2	1	0	1	8	5	2
TXOKO TABERNA	2	1	0	1	7	4	2
PEPELUS	2	1	0	1	8	7	2
MIKELOS	2	1	0	1	8	7	2
MOTZ	2	1	0	1	7	6	2
LOS DALTON	2	1	0	1	10	10	2
ADELAIDA HAIZEA	2	1	0	1	6	6	2
HIREI	2	1	0	1	7	8	2
LEYA	2	1	0	1	10	12	2
SIBILIUS ROVER	2	1	0	1	2	4	2
KAKAJAURI	2	0	0	2	5	8	0
POTOSORRI	2	0	0	2	4	8	0
MZK GANBELAS	2	0	0	2	4	11	0
CORINTO TAB.	2	0	0	2	2	14	0
BORROCKN ROLL	2	0	0	2	3	19	0

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ARGI IBILI	2	2	0	0	16	6	4
IRATI STS	2	2	0	0	10	2	4
BUKANAK	2	2	0	0	11	4	4
LENITZ GARAGAR.	2	2	0	0	8	3	4
ZULOAK	2	2	0	0	12	8	4
NOTXINGAN FLO.	2	2	0	0	11	7	4
BETRAYER	2	1	0	1	13	8	2
MONTERREY Z.B.	2	1	0	1	9	6	2
ALPEN KRAUSSER	2	1	0	1	12	11	2
ARRASATE KIROLAK	2	1	0	1	7	6	2
FANCY BOIS	2	0	2	0	6	6	2
DANOK LAGUN	2	0	2	0	4	4	2
OOOLE	2	1	0	1	4	6	2
EXCAV. LETE	2	0	1	1	4	8	1
DIEGO ANTONIO	2	0	1	1	4	12	1
OJO AVISORE	2	0	0	2	7	11	0
GANBELAS	2	0	0	2	3	8	0
KOPYPREST	2	0	0	2	4	11	0
TRONKOTEAK	2	0	0	2	4	13	0
ATXANTAKE TE	2	0	0	2	4	13	0

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
CARBUROS	2	2	0	0	18	4	4
AC SURCOS	2	2	0	0	14	3	4
ZULUS	2	2	0	0	14	4	4
KRISKIBALDA	2	2	0	0	9	1	4
POTROAK LORATEG	2	2	0	0	11	4	4
NUEVO TABERNA	2	1	1	0	8	3	3
FRANCISCANERR	2	1	0	1	10	6	2
KOAK LAIT	2	1	0	1	7	4	2
REVOLUTION ROCK	2	1	0	1	7	7	2
LASO ARREGI	2	1	0	1	7	6	2
TOVARITX	2	1	0	1	7	8	2
GURE LEKU	2	1	0	1	6	8	2
TUTTIFRUTI	2	0	1	1	7	10	1
LOS DIMY	2	0	1	1	4	7	1
BODISCA	2	0	1	1	3	6	1
MACCABI DE LEV.	2	0	1	1	3	8	1
ILUNA TABERNA	2	0	1	1	5	13	1
SOLANO 7 MARES	2	0	0	2	3	13	0
EZKIÑAKO HONTZAK	2	0	0	2	2	13	0
ELISABETH	2	0	0	2	4	21	0



JOVI

PINTURA EKOLOGIKOAK
Diferentzia: zure osasuna

Zoru arinak. Saipolan. Ceflex. Neurritako felpudoak. Pertsiana biribilkagarriak. Ehunezko hormatakoak. Kortxoak. Moketa losetan.

Ferrerias, 35 ARRASATE Tfnoa: 79 12 87

BELARRIRA

EMAITZAK

A TALDEA

Anbotoste KT 2 - Whiskeria Linde 4
 Alla Kuidaus 7 - Auf dem Koffer 2
 Arlutz 2 - Berango Sukaldeak 1
 Bayern Lenitz 0 - Etxe Mobiliaria 3
 Bizkorrak Avenida Tab. 1 - Fraguél Gol 1
 Euskal Indarra 2 - Jey Juliwer 3
 Ikatz 6 - Resakas 4
 Koxkas 2 - Suministros Ugarte 4
 Uglys Txinato 3 - Sokoakoak 4
 Zotz 1 - Trikiti 7

B TALDEA

Argi Ibili 8 - Tronkoteak 1
 Alpen Krausser 7 - Atxanta ke te merece 3
 Arrasate Kirolak 1 - Bukanak 5
 Betrayer 10 - Diego Antonio 2
 Danok Lagun 2 - Fancy Bois 2
 Excavaciones Lete 0 - Irati STS 4
 Ganbelas 1 - Leintz Garagardotegia 2
 Kopyprest 2 - Notxingan Florest 5
 Ooole 0 - Monterrey Zubi Bel 4
 Zuloak 7 - Ojo Avisore 5

C TALDEA

Arrasate Kristaldegia 6 - Potrosorri 3
 Adelaida Haizea 3 - Txoko Taberna 1
 Corinto Taberna 1 - Fosforos 8
 Borrockn'Roll 2 - Hirei 6
 Foto Imagen 3 - Kirten Tropel 4
 Kakajauri 3 - Los Dalton 5
 Leya 3 - Mikelos 7
 Los Heredia 6 - MZK Ganbelas 3
 Pepelus 5 - Motz 2
 Sibilius Rover 0 - Nabarros 3

D taldea

Iluna Taberna 4 - Tuttifruti 4
 AC Surcos 5 - Bodisca 2
 Nuevo Taberna 7 - Elisabeth 2
 Carbueros 4 - Franciscanerr 2
 Ezkiñako Hontzak 0 - Kriskibalda 5
 Gure Leku 5 - Laso Arregi 4
 Koak Lait 6 - Maccabi de Levantar 1
 Los Dimy 2 - Revolution Rock 5
 Tovarixtx 2 - Potroak Lorategi 6
 Zulus 8 - Solano 7 Mares 1

◆ **Zaparrada.** Adelaida Haizea eta Txoko taldeek kirol-izpiritu galanta erakutsi zuten joan den astelehen arratsalden, jokatzan ari zirela sekulako zaparrada jausi zitzaizenean gainera. Hala ere, jokatzan segitu zuten, blai eginda baina gogor borrokan.

◆ **Kakajauriko heroia.** Kakajurik 3-5 galdu zuen Los Daltonen aurka, baina hala ere, talde galtzaileko Carlos Ruiz izan zen partiduko heroi eta protagonista dudagabea. Lehen gola sartu eta gero, Ruizek kolpea izan zuen buruan, Zentroa joan zen ea osatzen zuten, baina han jende gutxi zegoenez, segituan itzuli zen eta 2. gola sartzeaz gain, 3.eko pasea eman zuen. Txapela kentzekoa.

Futbol kontuetan, ondo hasi arren partidua, zeharo oker liteke panorama minutu batzuk beranduago. Esan bestela B taldeko Diego Antonio taldekoei. 2-0 hasi ziren irabazten be-

ren neurketa Betrayerren aurka, baina gero 10 gol sartu zizkieten segidan, eta jardunaldiko goleada eskandalugarriaren protagonista bihurtu ziren.

“Gazteak martxan” IV. Argazki Lehiaketa

■ **Partehartzaileak**

Bi kategoria

- A) Deba Garaikoa 14-20 urte bitarteko gazteak.
- B) 21-35 urte bitarteko edozein.

■ **Sariak**

A) Kategoría: 1. 20.000 PTA
 2. 10.000 PTA

B) Kategoría: 1. 50.000 PTA
 2. 35.000 PTA
 3. 25.000 PTA
 4. 20.000 PTA (Aurreko sarituen artean Arrasatekorik egon ezean, 4. saria herri mailako lanik onenak jasoko luke).



■ **Aurkezteko epea**

Lanak aurkezteko epea urriaren 29an amaituko da



ASTEBURU HONETAN

Larunbata 16

Zaldibar

- 08.50 Koxkas - Uglys Txinato
- 10.00 Arlutz - Etxe Mobiliario
- 11.00 Sokoakoak - Zotz
- 12.00 Ganbelas - Notxingan Florest
- 13.00 Corinto Taberna - Hirei
- 14.00 AC Surcos - Elisabeth
- 15.00 Nuevo Taberna - Franciscanerr
- 16.00 Anbotoste KT - Auf dem Koffer
- 17.00 Arrasate Kristaldegia - Txoko Taberna
- 18.00 Solano 7 Mares - Tuttifrutti
- 19.00 Leya - MZK Ganbelas

Iturripe A

- 10.00 Bayern Lenitz - Fraguell Gol
- 11.00 Betrayer - Fancy Bois
- 12.00 Bizkorrak Bar Avenida - Jey Juliwier
- 13.00 Adelaida Haizea - Fosforos
- 15.00 Ezkiñako Hontzak - Laso Arregi
- 16.00 Euskal Indarra - Resakas
- 17.00 Borrockn Roll - Kirten Tropol
- 18.00 Alla Kuidaus - Berango Sukaldeak

Iturripe B

- 10.00 Argi Ibili - Atxanta ke te merece
- 11.00 Ikatz - Suministros Ugarte
- 12.00 Alpen Krauser - Bukanak
- 13.00 Foto Imagen - Los Dalton
- 15.00 Excavaciones Lete - Lenitz Garagardotegia
- 16.00 Kakajauri - Mikelos
- 17.00 Kopyprest - Ooole
- 18.00 Los Heredia - Pepelus

Igandea 17

Zaldibar

- 08.50 Danok Lagun - Irati STS
- 10.00 Trikiti - Whiskeria Linde
- 11.00 Carburros - Kriskibalda
- 12.00 Arrasate Kirolak - Diego Antonio
- 13.00 Los Dimy - Tovarixtx

Iturripe A

- 10.00 Monterrey Zubi Bel - Zuloak
- 11.00 Motz - Sibillius Rover
- 12.00 Ojo Avisore - Tronkoteak
- 13.00 Iluna Taberna - Bodisca

Iturripe B

- 10.00 Potroak Lorategi - Zulus
- 11.00 Nabarros - Potrosorri
- 12.00 Gure Leku - Maccabi de Levantar
- 13.00 Koak Lait - Revolution Rock



Kontuz baloiekin: finantzak arriskuan egon daitezke

Azken jardunaldi honetan hiru baloi, hiru, galdu dira jokoan, eta antolatzaileek dozenerdi gehiago erosi dituzte badaezpada. Baloi bakoitzak 4.700 PTA balio duenez, tonika honetan jarraitzen badugu laster egongo da antolakuntza zerbaki gorrietan. Baloiak era bitxian galdu ziren, bat Zaldibar atzeko obretan, beste bat frontoiaren atzeko teilatuan, eta hiru-garrena errehabilitazioko patioan. Bertara bost minutu pasatokoan joan ziren baloia hartzera, baina ume batek jokalariei kontaktu zenez, andrazko batek hartu eta eroan egin zuen ordurako.

Baloiena izaten da Zaldibarko

antolakuntzak izaten duen gastu finkoetako bat. Irabazleari ematen zaion kirol ekipamendu osoa ere antolakuntzak jartzen du, eta trofeoei dagokienez, aurtengoan, aurrekoan ez bezala, hiru kolaboratzailek jarriko dituzte: Arrasate Kirolak, JMA eta Kajoik. Baloiak gorabehera, antolatzaileek ez dute uste aurten esturasunik jasango dutenik. Iaz, superabita ere egon zen (ez haundiegia, 2.000 PTAkoa). Erabiltzen den dirutik, noski, antolatzaileek ez dute berentzat ezer hartzen (iraganeko kontu zatarrak ahaztuta daude), ez bada "bi edo hiru hilabetetik behin egindako afaritxo bat edo", aitortu diguten bezala.



Parques y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.

Larazaintzako mantenimendua ora har.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



JUAN LUIS AREXOLA-LEIBA*

AEDren kronologia txikia

• Sorrera apala:

Soziolinguistika ikastaroa Bergaran.

• Euskararen egoeraz eta etorkizunaz 3 hitzaldi Arrasaten.

• Arrasate Euskaldun Dezagun taldearen lehen bilera 1983ko ekainaren 13an egin zen.

• AEDren Batzar Eratzaillea azaroaren 29an.

1983ko azaroa - 1987ko iraila

• 2 batzorde martxan: bazkide lortze eta diru-bilketaz arduratuko zena eta ekintzetaz arduratuko zen Batzordea.

• Emakume taldea -1985 irailean-, Euskalan eta bertso-irratza taldea-1986ko udaberrian-, irakaskuntza taldea,...

• Zerbitzu publikoetan euskara bultzatzeko kanpaina (1985ean), Arrasate antzerki zirkuitoan sartzea, kultur asteak antolatzea, eta

1987an jarri ziren martxan «Arrasate (ipuina, poesia, bertso-paperak, komikia, argazki eta bideo) lehiaketak» eta Iokin Zaitegi Itzulpen laburren sariketa.

• 1984ko ekainaren 4an egun erdiko dedikazioaz, AED elkarteko lehen dinamizatzailerak.

• 1985ko apirilean, «Abaroa zaharra», Pablo Uranga 4ra AEDren lokala.

• Udaletxean ez zegoen oraindik euskara zerbitzurik AEDk, sorrera beretik, hala eskatu arren.

1987ko iraila - 1991ko urria

• 1987ko irailean Euskara Batzordea eta Euskara Zerbitzua sortu Arrasateko Udalean. AEDk Euskara Batzordean hasieratik hartu du parte.

• 1988ko uztailean lehen aldiz Udaleku irekiak eta 88ko urrian «Larunbat-ero» ekintzak.

• 1988ko abenduaren 2an ARRASATE PRESS astekaria jaiotzen. 1989ko urrian JAZTEN soziolinguistika-aldizkaria. 1990eko otsailaren 13an Arrasate Telebista- ATB emititzen hasi.

• 1990eko Martxoaren 28an euskararen erabilera areagotzeko *Hitzarmena* sinatu zen.

• «Un futuro para nuestro pasado» liburuaren aurkezpena 1989ko apirilaren 11, 13 eta 18an, Euskal tonbola -1989ko San Juanetan- eta 1990 eta 1991 urteetan Pastoral antzeztea Arrasaten.

• 1989ko uztailean 20an AED eta Arrasateko Udalaren arteko lankidetzak Hitzarmen ekonomikoa.

• ERDU-AEK euskaltegiak 1989ko uztailean bertan behera utzi zuen bere lana, euskaltegiak jarraitu arren.

1991ko urria - 1993ko urria

1987-1991 urteetan ikaragarri hazi zen AED. Antolaketa arazoei aurre egiteko, 1991n galdera bati erantzun genion: zer behar dugu, AED erraldoi bat egin edo ekintzak sendotu ahala autonomizatu? Ekintzak sendotu ahala autonomizatzeari erabaki genuen. Honela,

• Arrasate Komunikabideak (ARKO) 1991ko urrian, Txatxilipurdi umeen ekintzetan, eta «Ekin» emakume taldea.

• 1992an Gazte Mobidie.

• 1993an, ludoteka iraunkorra martxan jarri.

• 1993an Fagor Elektra-tresnetan Euskara Batzordea sortu.

Eta hemen dago AED bere X. urteurrena ospatzeko prest. 10 urtetan egindakoak merezi du ospatzea, hala ere, atzera gehiegi begiratu gabe, ea datozen 10 urteak emankorrak diren, izan ere, Arrasate euskalduntzeko guzti honen eta gehiagoren beharra izango da eta. Pausoz pauso Arrasate euskararuntz. «AED elkarte 10 urte, egunez egun, Arrasate euskalduntzen».

*AEDKO PARTAIDEA.

Herritarrek zenbateraino ezagutzen dute AED?

— AED aski ezaguna da, jende gaztearen artean batez ere. Etorkizunerako ideia eta iniziatiba berriak sor daitezke gazteen ezagutza horretatik.

— AED Elkarte gutxien ezagutzen duen jende sektorea erdalduna eta heldua da.

— AEDren helburuak aski ezagunak dira, horretan kanpaina ona egin da.

— Helburuen garapenari buruz ere balorazio positiboa egin daiteke, herrian euskal-mugimendu nabaria somatzen dute herritarrek.

— EkinTzarik txalotu eta ezagunenak ume eta gazteei zuzendutakoak dira. Jendeak komentatu egiten ditu kalean.

— Umeen aisialdia euskaraz gauzatzearen helburua beteaz doa, euskarak ondo pasatzeko aukera ere ematen duela alegia.

— Euskararen funtzioak gehitu egin dira Arrasaten, batez ere ume eta gazteentzat; eta euskara gauza negatibo izatetik positibo izatera iritsi da.


— AED ez da beste inongo elkarte edo erakunderekin erlaxionatzen. Lotzen duenak ATB edo A. Pressekin lotzen du.

— Ez da inongo alderdi politikorekin ere erlaxionatzen, independentetzat jotzen da.

— Herritarrek ematen dioten nota, 7,91 da batezbeste.

— Gero eta jende gehiago dago AEDren inguruan inplikaturatuta.

ERRUKANE APERRIBAI



EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia.
Offset industrialia

Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

MENDI
taberna

Mendi da zure etxea

Maalako Arrabala, 4
Tfnoa: 79 20 54
ARRASATE

Euskara elkarteen mapa Pinportaz jositako zelaia

Luis Fernandez

AED ez da fenomeno isolatua. Herriz herri, euskara elkarteak ugalduz joan dira azken urtetan, bazter guztietan premia eta kezka beretsuak baitaude hizkuntzaren inguruan. Hala ere, Arrasateko esperientzia erreferentzia sendoa izan da elkarte horietako asko eratzeko orduan, eta funtzionatzeko eran ere bai.

Arrasate Pressek beste elkarte beretsuetako iritziak batu ditu urteurren honen inguruan, eta denak bat datoz AED erreferentzia argi bat izan delakoan. "Beti ikusten dugu AED eredu bezala", dio **Pedro Mari Urteagak (Laixan, Oñati)**. Ereduez gain, harreman pertsonalek ere izan dute garrantzia elkartearen sorreran, **Durangoko Barbaroko Andoni Mujikak** dioskun bezala: "Gure kasuan oso erreferentzia zuzena izan da AED. Irakasle Eskolan nenbilen ni, Arrasateetik gertu, eta Adorez eta Atseginez mintegitik harremanetan geunden batzuk AEDkoekin".

Hala ere, tokian tokian mugimendu desberdinek ga-

rapen propioa izan dute, bereziki hirietan. "Geurea sortzean erreferentzia zuzena zen AED, teorizazio mailan batez ere", dio **Xabier Galarragak (Geu Gasteiz)**, "baina aplikazio praktikoa bakoitzak berean garatu behar du. Erabat giro desberdinean gaude

Gure erronka teorizazioa nola gaurkotu da, nola hiri erdaldun batean sartu"

**XABIER GALARRAGA,
GEU GASTEIZ.**

gu, eta gure erronka teorizazioa nola gaurkotu da, nola hiritartu eta erdalduna den hiri batean sartu".

Baina zertan datza erreferentzia izaera hori? **Eibarko Eta Kitto** taldeko **Fernando Muniozguren**en hitzetan, "euskaldun komunitatean badago gaitasuna honelako ideia bat hezurmamitzeko; eszeptikoentzat utopia ziren halako euskararen mugimenduak, baina orain demostratze da ezetz, AEDk erakutsi digu hori gezurra dela". Ildo beretik mintzo da Mujika: "Ebidentzietan sinisten dugu, leloenak ere ikusten du lan egin daitekeela".

Arrasateko elkartearen merituez aparte, bitarteko ugari dauzkala eskura gogoratzen digu Urteagak. "Funtzionamendu aldetik antzera gabiz, baina AEDn jende gehiago dabil, kontu gehiagotan sartuta". Arrasateko kasuan, herri aldizkari eta telebistaren garapenak asko zor dio AEDri, eta beste leku batzuetan ere herri aldizkarietako oso lotuta ageri dira euskara elkarteak.

ZABALKUNDEA ETA LOTURAK

Beren ezaugarri eta eremu desberdinekin, euskara


elkarte gehienak halako mugimendu komun baten parte sentitzen direla dirudi, nahiz eta erakunde antolaturik ez dagoen. AEDren datuekin Arrasate Presse egin dugun euskara elkarteen mapa honetan nahikoa puntu ageri dira dagoeneko, eta ugaltzen ari dira egunez egun.

Logikoa den bezala, AEDk ez du hedapen politikarik herritik kanpora, baina ez da kasualitatea Deba Bailaran ia herri guztiek izatea euskara talderen bat. "Herrietako euskara taldeen fenomeno AEDren filosofia eta praktikan inspiratuta dago, eta bidea egiten doa", dio Muniozgurenek Deba Behetik, Eibartik.

Elkartearen arteko lotura puntu bat ere badago bailaran: Debagune, Bergaratik Eskoriatzarainoko taldeak biltzen dituen elkarte. "Debagune ideia bezala ondo dago", esaten digu Urteagak, "ikus-

Lehen beste estilo bat zegoen, erreibindikatiboagoa, orain hori atzeraka doa"

**ANDONI MUJIKA,
BARBARO, DURANGO.**



1 AED Arrasate '83 25.000 890	13 Geu Gasteiz Gasteiz '92 205.000 300	20 Idolaz Antzuola '83 1.900 -	27 Goierriko Eus. Esk. Lazkao '77 5.500 175	34 Bagera Donostia '91 175.000 280
2 Portumintzo Portugalete '93 20.450 12	14 Tiki Tiaka Lapuebla '93 800 -	21 Urakapin Soraluze '83 4.700 -	28 Galtzaundi Tolosa '90 18.500 250	35 Euskara Taldea Lezo - 5.600 -
3 Sasiburu Barakaldo '92 115.000 175	8 Berbaro Durango '89 27.000 300	15 Gatzaga Gatzaga '93 200 -	22 ...eta Kitto! Eibar '92 36.000 275	29 M. Larramendi Bazk. Andoain aldea '92 25.000 86
4 Ibaizabal Bilbo - 381.000 -	9 Aixebolari Ondarroa - 11.000 -	16 Axtroki Eskoriatza '91 3.800 44	23 Izarra Elgoibar '63-91 11.000 500	30 Tiakun Lasarte '91 18.000 325
5 Lainomendi Derio '89 5.000 10	10 Euskal Birusa Ermua '89 18.000 -	17 Beinke Aretxabaleta '87 5.700 240	24 Zintzo-Mu Urretxu '92 6.000 170	31 Karkara Orio '89 4.300 -
6 Mungia Euskaldunduz Mungia '90 11.000 70	11 L. Euskalt. Bat. Laudio - 21.000 -	18 Laixan Oñati '90 10.800 200	25 Euskal Txokoa Legazpi '92 10.300 180	32 Dobera Hernani '92 19.000 201
7 U. Eusk. Taldea Urduliz - 2.500 -	12 Bagare Gasteiz - 205.000 -	19 Jardun Bergara '90 15.000 450	26 Aigeala Beasain '93 12.300 125	33 Arrano Beltza Donostia '79 175.000 175
				36 Lau Haizetara Errenteria '92 46.000 100
				37 Kima Altsasu '92 7.000 45
				38 Zaldiko Maldiko Iruñea - 182.000 -
				39 Baztango EKB Baztan - 8.000 -
				40 Euskaraz Bizi Baiona - 218.000 -

pegi zabalago batetik lan egiteko, ez bakarrik herri batetik. Baina lan hori samurra ere ez da izango, poliki-poliki goaz eta oztopoak ere badaude". Oztopo horien artean, Debagunek erakundeengatik laguntza gutxitxo izan dituela aipa daiteke.

Eremu zabalagoan, "lotura formalik ez dago", azaltzen digu Mujikak. "Baina laguntasuna bai elkarren artean, eta toki eta proiektu konkretuetan biltzen gara. Baina uste dugu loturak iraunkorrago egin beharko lirakeela". Elkar-ezagutza eta harremanak handitzeko, euskara elkarrean jardunaldiak izango dira

aukera. AEDren 10. urteurren honen inguruan ospatuko dira jardunaldiok, urriaren 29 eta 30ean, Arrasaten.

LEHENGO ESTILOA ETA ORAINGOA

Euskara elkarrean mugimenduaren etorkizunean guztiek dute itxaropena. Aurreko urteetako dinamikarekin gonbaratuz, salto kualitatiboa gertatu da. "Lehen beste estilo bat zegoen, erreibindikati-boagoa, orain hori atzerakada, nahiz eta toki askotan eragin handia eta eragin ona duten horrelako taldeek", dio Berbaroko Mujikak. Galagarrentzat, "lehen nahiko bide

Poliki goaz eta oztopoak ere badaude"

**PEDRO MARI URTEAGA,
LAIXAN, OÑATI.**

agortuan geunden, eta euskara elkarrean mugimendua argia ikusten uzten duen leiho bat da". Leiho hori irekitzea ez da erraza izan, "gizarte honetako transbertsalismo eta alderdikeriak kontuan hartuta", Fernando Muniozgurenekin diogen bezala, "baina oraindik euskara dugu lokarri eta euskal kulturaren inguruan badago horrelako fraternidade giro bat". Hala ere, kontrapuntua jartzea ere komeni da: "Pauso erraldoiak eman barik, pauso txikiak ari gara ematen", dio Urteaga oñatiarrak. "Zeregin ugari dago, egiten diren guztiak gutxi dira gure helburuak lortzeko".


Zer iritzi duzu AEDren orain arteko lanaz?



Patxi Mendizabal
Errepublikara garaiko ikastolako maixua

AEDk lan ederra egin du eta Mondragoen ezagun-ezagun da euskararen inguruan asko aurreratu dena. Elkarte serioa dela ere argi geratu da, lana ondo egin du AEDk.

modua, ume, gazte, emakume eta helduekin darabilen mobida guzti hori. 10 urte dira, baina epe luzera efikazago ikusiko dira emaitzak. Horixe da niretzat AED.



Koldo Rodriguez
Irakasle Viatorista

AEDren hasi-masietan egia esateko, xemeikorik ere ez nuen ematen harengatik: euskaltzalean "soziedade" bezalako batean bildu, haien kuotez ordainduta eta euskara suzperzeko ekintzak antolatuz... utopiak! Ez zitzaidan iruditzen orduan Arrasateko jendea hain eskuzabala izango zenik, diruz, eta batez ere, denbora eta ahaleginez. Zorionez, denborak arrazoia kendu zidan. Askok eskertu behar diegu une hartako aintzindariari eta ondorengo jarraitzaileei izan duten ekimenagatik, eredugarri eta beterratzaile gertatu baita AED, guretzat eta ingurutik Arrasateri begira jarri diren hainbesterentzat. Segi aurrera!



Inaxio Garro
Euskadiko Kutzako euskara arduraduna

Zoritarrez, enpresa bateko konplexutasunean euskarari ez zaio behar hainbeste jaramon egiten. Arrasaten egundoko lana egiten ari da AEDren barruan Euskalan, euskara lan mundura eramanez. Euskarak aurrera egin eta etorkizuna ziurtatu nahi badu, derrigorrezkoa da aurrerapausoak ematen jarraitzea. Zorionik beroenak egingo ahaleginengatik.

aurrera egiteko daukan indarra eta gogoia egiten zaizkit batez ere azpimarragarri.


Giro erdalduneko auzoetan eragin handia izan du AEDk 10 urte hauetan, eta herrian orokorrean ezaguna dela ere esango nuke.

Geure aldetik, jende nagusiarentzat ikastaro bat egitekotan gaude, bestela euskara ikastera joango ez litzatekeen jendearentzat.



Pilar Ubago
Hire liburudendakoa

Funtzio motibatzailea ikusten diot AEDri. Jendeak euskara bizi izatea lortu du, dibertitzen den artean jendea euskaraz aritzea. Hizkuntzaren bizipen erreala izateko hazia erein du Arrasaten, eta horixe da elebitasun bortitzaren aurka borrokan egiteko



Pepi de la Concepción
S.Andres Eskolako Guraso Elkartekoa

Euskararen alde lan ona egiten ari da, familia erdaldunetako umei begira, batez ere, ohizko ez duten medio baten eta eskolaz kanpo euskara erabiltzeko aukera ematen zaielako, etxetik mugitu barik.

Hala ere, erdikaldean bakarrik izan beharrean, auzoetara hurbitzen hasi behar luke, antolatzen dituen ekintzak herritar guztientzat izan daitezkeen.



Virginia Amor
Al Andalus elkartekoa

Oso egokia iruditzen zait AED egiten ari den lana eta

Zarugalde
kalean...

BRANKA
taberna

Zer egin beharko luke AEDk hemendik aurrera?




Urri Urizar
AEDko dinamizatzailea

Ez gaitzen hamar urte hauei luzaroan begira gelditu, oraindik 20.ena eta 30.ena ospatu behar baititugu. Eta ziur egon, kanpotik txalotzea baino, barrutik bultzatzen dela euskaldunentzat osasun-garriagoa.



Kike Amonarriz
SIADECoko soziolinguista

Nik espero dut AED datozen urteotan erein duen haziaren fruituak jasotzen hasiko dela modu nabarmenean. Hau, markatu dituen lan ardatzak sakonduz eta euskarren alde garatu duen dinamika soziala herriko talde eta sektore guztietara zabalduz egingo du. Honek AEDri indar berri emango dio.



Juan Jose Iriarte
Euskara Batzordeko burua

Gutxienez orain arte bezela jarraitu beharko luke AEDk. Lana gutxitzen bazaio, jendeak euskaraz egiten duela esan nahiko du horrek. Era berean, garrantzitsua da bazkide garenok eta gainontzeak ere elkarteari laguntza eskeintzea.



Nati Abasolo
Euskaltegiko zuzendaria

Sektore bat badago urratu beharrekoa, alegia, hamalau urtetik gorakoena. Orain arte eredu elebidunetan ibilitakoei, ekintzak eta antolatuz, euskarazko esparruan

murgiltzen lagundu beharko lieke. Hauei laguntza eman behar diegu. Horretarako, noski, beharrezkoa da guztion laguntza.



Hirune Iribecampos
Irakaslea

Izugarria izan da gure herriaren eguneroko bizitzan lortu duen oihartzuna. Dena den, oraindik ere ba ditugu makinatxo bat bazter jorratzeko. Lan serioari ezer kendu gabe, helduontzako mobida botatzen dut faltan. Gu geu ere jai giroan murgiltzeko, ekintzak antolatu beharko lirateke.

kit burura, AEDk Arrasateko euskaldun guztien partehartzea behar baitu aurrerantzean ere. Beharrezkoak izango dira, maila desberdinetako administrazioen dirulaguntzak proiektu desberdinetarako, baita orainarte bezelako diru aportazioak ere herriko enpresa zein erakunde pribatuetatik. Baina beste hamar urtetan jarraitzeko beharrezkoa zaitugu zu zeu ere, gero eta Arrasate euskaldunago bat egiteko.



Aitor Orobengoa
EUEko zinegotzia

Hiru erronka berri ditu AEDk. Lehena, elkarrekin partaide berriak lortzen ahalegindu behar du. Bigarrenik, esan helduen hezkuntzan ere gauzak antolatu beharko lituzkeela, euskaraz aurrera egiteko. Azkenik esan, gerrikoa ere estutu beharko duela, krisi egoerak eraginda dirulaguntzak urritu egingo baitira, beraz dirua zuzen bideratu beharko dute.



Javier Ozaeta
AEDko idazkari orokorra
Kolaborazio hitza dator-



- Estetika kabinetea
- Larruzko artikulua
- Bitxitegia
- Jostailuak

Kanpatorpea, 4
Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE

ZARRAOA
EL ARCA DE NOE



- Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
- Otzaratzarrak
- Giltzak gordetzeko armairuak
- Erremintak eramateko gurdiak
- Erremintak gordetzeko armairuak
- Lan egiteko aukiak

Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

10. urteurreneko ospakizun programa

Urriak 15, ostirala ARRASATE PRESS astekariaren AEDri buruzko gehigarri berezia.

Urriak 22, ostirala Haurrentzako jai erraldoia. Zikloka banaturik, Arrasateko Eskolaurreko eta OHOKo ikasle guztiek parte hartuko dute.

Urriak 30 eta 31 "Herrietako euskara elkartei buruzko jardunaldiak".

Urriak 30, larunbata Ponentziak: "Azken 10-15 urteotako udalerrri mailako euskararen aldeko herri-ekimena" (Kike Amonarriz, Siadeco), "Euskal kulturaren zabalpena" (Axun Aierbe, Tolosa), "Euskarazko komunikabideak" (Iñaki Mendiguren), "Haurrekiko ekintzak" (Marrije Manterola, Bagera, Donostia), "Gazteekiko ekintzak" (Jabier Ozaita, AED), "Sentsibilizazio arloa" (Juan Luis Arexola-Leiba, AED), "Herrietako euskara elkarten dinamikak nola betetzen duen euskararen erabilera areagotzeko helburua" (Xabier Aizpurua, HPIN; Julen Arexola-Leiba, Adorez eta Atseginez; Jose

Manuel Odriozola, EHE). Ponentziei buruzko mahaingurua.

Urriak 31, igandea Ponentziak: "Euskara eta euskal klutura gizarte-integratiorako bide" (Erramun Baxok, EHU), "Erdararen erabilerratik euskararen erabilerrara jokatibide aldaketa: konportamendu-aldaketarako mekanismoak" (Imanol Agote, HPIN), "Euskararen normalizatzaierako entitateen arteko elkarlana" (Iñaki Arruti, Lasarte; Fernando Muniozguren, Eibar), "Herrietako euskara elkarten antolakuntza" (Joxe Anjel Mikeo, Debagune). Mahaingurua: "Herrietako euskara elkarten lehenetasunak eta etorkizuna" (Joxe Etxeberria, AED; Andoni Mujika, Durango; Avelino Urretxo, Geu Gasteiz).

Jardunaldien inguruan, oraindik zehaztu gabeko egunetan, "Euskara eta euskal kultura gizarte-integratzaierako bide" gaiaz hitzaldi zikloa izango da Monterron kultur-etxean.

Azaroak 6, larunbata. Maskarada taldearen "Logalea zeukan ekilibristaren kasua" an-

tzezlanaren emanaldia. Amaia antzokian gaueko 10'30etan.

Azaroak 13, larunbat. Herri Bazkaria Arrasateko kiroldegian.

Azaroak 20 (edo 27) Rock jaialdia Arrasateko kiroldegian.

Azaroak 26 eta 27 "Herri-komunikabideei buruzko II. jardunaldiak", Arrasate Komunikabideak (ARKO) Kultur Elkarteak antolatutarik.

A saila, ostirala 26 Txostenak: "Herri aldizkari bat zure herrirako" (Alberto Agirreazaldegi), "Herri telebista bat zure herrirako (Asier Aranguren). Mahainguruak: "Aldizkari berriak" (Geu Gasteiz, Elgoibarraren eta Eraz), "Herri telebistetako esperientziak" (ATB eta Telebilbao).

B saila, ostirala 26 Txostenak: "Kalitate kontrola herri aldizkarigintzan" (Joxe Aranzabal), "Herri prentsarako agiritegiak" (Teresa Agirreazaldegi), "Herri aldizkariaren diseinuaren azterketa" (Ricardo Bermejo). Mahaingurua: "Hainbat multimediaren esperientzia" (ARKO, Ribera Navarra, Hospitalet, Alcoben-

das).

A saila, larunbata 27 Txostenak: "Herri irratia bat zure herrirako" (Miren Urkiola), "Nola saldu iragarkiak" (Alberto Vidal), "Publizitatetari buruzko azterketak" (Migel Angel Elkoroberezibar), "Erakunde publikoen eginkizuna" (Jose Mari Eraña), txosten laburrak. Mahaingurua: "Herri irratia" (Xorroxin, Gure Irratia, Durango Ir., Bizkaia Ir.).

B saila, larunbata 27 Txostenak: "Herri komunikazioaren hainbat dilema etiko" (Carlos Soria), "Herri aldizkariaren ezarpen eta zabalpena" (Jose Manuel Irigoien), "Herri komunikabideen arteko elkarlan bideak" (Fernando Muniozguren), "Kable bidezko telebista" (Iñaki Erguin). Mintegia: "Herri aldizkarietako edukiaren azterketa" (Jotxo Larrañagarekin).

Azaroak 29, astelehena AED eratu zeneko 10. urteurrenean, ospakizun ekitaldiei amaiera eman go zaie AEDren sortzaileekin eta beste hainbat jenderekin egindo den ekitaldian.

LORAMENDI KIROLAK

POLAR FR

PREST GAUDE ZU JAZTEKO

FORRO POLARRETAN AUKERA GUZTIA AUKERATUKO DUZU

ZURE GUSTOKO MARKAK: SALEWA, TRANGO, SILVY, BENDER, CACAO, ETIREL, ... ETA ASKOZ GEHIAGO

JANTZI ERA DESBERDINEZ LORAMENDIN





Xabier Retegi, Eli Galdos, Ardanza lehendakaria eta Eskolako arduradunak izan ziren mahaiburua.

Eskolaren 50 urteetan, lana sortzea da erronka

Jose Antonio Ardanza lehendakariak kooperatiben munduan gertatzen ari diren aldaketak txalotu zituen joan den astean, Eskola Politeknikoaren 50. urteurreneko ospakizunen hasieran. Kooperatibetako "berrikuntza eta aldakuntza izpiritua euskal industria sare osora zabaltzea nahi nuke", esan zuen Ardanzak.

Lehendakariaren presentziaz, Eskolaren urteurreneko hitzaldi nagusia Xabier Retegik eman zuen. Retegi, Eskolako zuzendari eta lehendakari izandakoa da, eta gaur egun Eusko Jaurlaritzako industria eta energia sailburuordea da. Eskolak bere heziketa jardunean mantendu dituen izpiritua goraiatu zuen Retegik. Aurrera begira, hauek izan beharko lirake, bere ustez, Eskolaren helburu nagusiak: gizartearen abangoardia teknologia izatea, internazionalizaziorako prestatzea, kalitatea zaintzea, eta batez ere, lan-sortzaile bilakatzea. Paralelismo argi bat eginez, duela 50 urte Euskal Herriko hezkun-

tza eta formakuntza falta zirela gogoratu zuen Retegik. Gaur, ordea, lana da falta dena.

Ospakizun zerrenda luze bat hasi du joan den asteko ekitaldiak. Datorren astean, Gureskola aldizkariaren lehen alea kaleratuko da, Eskolako lagunen elkartearen berripapera. Elkarte hau abenduan aurkeztuko da ofizialki, eta beste toki batzuetako ikasle ohien elkarte antzerako zerbait izango da, baina ikasleak baino gehiago bilduko dituena. Azaroan, bestetik, Arrasate Musikalek eta Goikobaluk kontzertu bat eskainiko dute.

Urteurren zehatza joan den igandean izan zen, urriaren 10ean. Egun horretan, 1943an, ireki zituen atea, Biteri eskoletan, Jose Maria Arizmendiarietaren Eskola Profesionalak. Joan den asteko ekitaldian, hizlari guztiek nabarmendu zuten Arizmendiarietaren figura pertsonalaren garrantzia; bera izan zela Eskolaren arima eta sustatzaile nagusia, eta gero kooperatiben mugimendu osoarena.

KTkoen kritikak

Kooperatibisten Taldeak (KT) MCC aplikatzen ari den politika kritikatu du. Kooperatiben arloan ezarri nahi den banaketa sektoriala kritikatu du KTK, besteak beste horrek Fagor taldearen batasuna desegingo duelakoan. Aldi berean, Eusko Legebiltzarrak onartutako kooperatiben lege berria kritikatu dute KTKoek.

Tabernen ordutegia

Arrasatek ez du taberna ordutegi luzaturik izango. Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizun zuzendaritzarekin eztabaida bat izan du Arrasateko udalak azken hilabeteetan, tabernen ordutegia zela eta. Herriko tabernariak eskatuta, Udala ordutegia ordu erdi luzatzen saiatu da, baina Jaurlaritzatik ezezkoak izan dira erantzunak. Ezetzen aurrean, Udalak auzitegietara jotzeko aukera zeukan, kontua epai baten bidez erabakitzeke, baina alferrikakoa izan zitekeela pentsatu dute eta beraz, Jaurlaritzaren ordutegia onartu eta hori aplikatuko da. Beraz, taberna arrunten itxiera ordua 1.30ak izango da lan-egunetan, eta 2.00ak asteburuetan. Opor garaietan, ordu erdi gehiago. Aurrerantzean, ordutegia ez betetzeagatik salaketa eta espedienteak udalak tramitatuko ditu. Orain arte Ertzaintzaren eskumena izan da hau.

FANCY

Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

LORATEGI

Iturriotz, 7
ARRASATE
Tfnoa: 790467



Bi manifestazio ere konbokatu dituzte sindikatuek, ostiral honetarako eta datorren asteazkenerako.

Bi orduko greba deialdi orokorra industriagatik

Asteazkenerako, hilaren 20rako, bi orduko greba edo lanuztea konbokatu dute Arrasateko lau sindikatu nagusiek; LAB, UGT, ELA eta CCOOk. Egun horretan, UCEM taldeko hiru enpresa arrasatearretan, Roneon, Cerrajeran eta Transformados Metalicosen, greba egingo dute, eta gainerako arrasatearrei bi orduko lanuztea egiteko eskatzen diete.

Protestaren arrazoi zuzena, Roneoko azken gatazka da (enpresa zuzendaritzak 74 langile kanporatu nahi ditu), baina Arrasateko industriaren egoera orokorra negargarria izanik, grebak esanahi zabal bat du sindikatuen ustez, eta hortaz, herritar guztiei dei egiten diete parte hartzera "Arrasate defenda dezagun" lemapean.

Roneoko auzian, bitartean, konponbiderik ez zen gauzatu lerro hauek idazterako. Sindikatuek plan alternatibo bat aurkeztu diote zuzendaritzari, baina arduradunek ez dute onartu, plan horrekin eurek nahi baino diru gutxiago irabaziko luketelako. Zuzendaritzak zerbitzu enpresa osagarri batzuk

sortze proposatu die langileei, enplegu berriak eskaintzeko, baina ez da eskaera finkorik egin oraingoz.

Roneokoaz gain, Transformados Metalicos eta Cerrajera enpresetan oso etorkizun iluna ikusten da. Kasu hauetan, UCEMek enpresen etorkizunean inolako interesik ez duela uste dute sindikatuek. UCEMek, industriari gainera lehenbailehen kendu nahi omen ditu, espekulazio jokoetan dirua irabazteko, salatzen dute langile ordezkariak.

Espekulaziorik gerta ez dadin, Cerrajerako lur sailekin zer gertatzen den zaintzeko eskatu diote udalari sindikatuek, ostiral honetako pleno berezira aurkeztutako mozio batean. Cerrajerako terrenoetan, 64.000 metro karratu daude, eta industria desagertzera badoa, lurra behintzat Arrasateko herriaren esku geratu beharko litzateke, sindikatuen ustez, ez UCEMek espekulazioako erabil dezan. Plenorako mozioan udalaren elkartasuna ere eskatzen dute lau sindikatu sinatzaileek. Manifestazioetara joateko deia ere zabalduta dute sindikatuek.

Autopistaren inguruko plataformak

Maltzaga-Urbina autopistaren aurkako plataforma herritar bat eratuko da datorren ostira-lean Bergaran, 19.30etan Kultur Etxean. Deba Garai eta Beheko herritar eta talde ekologisten iniziatibaz, ahaleginak elkarlanean jartzea da asmoa. Plataforma horretan parte hartuko dute Bailarako talde ekologistek: Eguzki, Eki, Mendia Bizirik eta Amilotx. Talde hauek, bestetik, txosten edo alegazioak prestatzen ari dira dagoeneko Interbentzio Gune Partehartzaileetan (IGP) aurkezteko.

Ordezkaritxinarren bisita

Urriaren 17tik 25era, Txinako agintari talde baten bisita izango da Arrasateko Kooperatibetan, MCCK Txinarekin duen harremanak sendotu nahian. Bisitarien artean, Txinako bi garapen eskualdetako gobernadoreak, Partidu Komunistako Komite Iraunkorreko kide bat eta Kooperatiben federazioko ordezkari bat etorriko dira. Kapitalismorako bidean kooperatibismoa indartu nahian dabilta Txinan. MCCko ordezkari bat, Mongelos buru zela, izan zen Txinan bere garaian, eta orduko harremanetatik, esperientzia kooperatiboa ezagutu eta aprobatazateko gogoz zebiltzan txinarrak.

Garagartza auzoan
Tfnoa: 79 76 58
ARRASATE


UGARAN
jatetxea

Arreta handiko
sukaldea.
Giro abegikorra.



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

**Guzti hau irudi berri baten
hasiera baino ez da,
profesionaltasun garbiko
bidean.**



**Zuk badakizu Euskadiko Kutxak gogor diharduela euskal gizarte eta enpresa-
gintzaren alde. Oso Kutxa geure-geurea dela.**

**Euskal Herriko Kutxa. Baina, ezagutzen al duzu gure profesionaltasun -eta
aholkamendu- maila.**

**Gazteentzat, esate baterako, onura gehiago. Familientzat, interes handiagoak
kontu korrontean eta ohizko libretan. Beste kutxetan baino gehiago.**

**Eta guzti hau irudi berri baten hasiera baino ez da, profesionaltasun gar-
biko bidean.**

ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65 ☎

Etxebizitzak

- **Donostian pisu bat osatzeko** bi neska behar dira. Tfnoa: 77 05 88. Esther (eguerdian).
- **Pisua alokatzen da Donostian**, irakasle, ikasle edo enplegatuei. Merke. Tfnoa: 79 35 13.
- **Bi neska inglesa gara** eta urritik uztailearte, pisu bat alokatuko genuke. Tfnoa: 79 90 36 (Rene-gatik galdetu).
- **Garaje bat edo leku seguru** bat behar dut motorra gordetzeko. Tfnoa: 79 90 36. Richard.
- **Neska bat behar da ikasle pisua** konpartitzeko Deustun. Tfnoa: 79 49 69. Jende jatorra. Ana.
- **Bakarreko gela alokatzen da** Arrasaten. Pisua erdialdean. Tfnoa: 79 09 11.
- **Bikote gazte batek pisua behar du alogeran** Arrasaten. Tfnoa: 77 08 55. Bulego orduetan deitu.
- **Neskentzako logelak** alokatzen ditut, sukalde eskubidearekin. Tfnoa: 77 03 36. Diana. Lan orduetan.
- **Bilboko parte zaharrea pisua** osatzeko ikasle bat behar da. Dei egin 79 34 51 edo 79 51 30. 7,30etatik 10,30etara.
- **Gela bat dago libre** bi oherekin. Tfnoa: 79 07 73.
- **Leioan bi ikasle behar dira** pisua osatzeko. Tfnoak: 77 12 00 (lan-orduetan) eta 71 42 10 (Gauetz). Kontxi.
- **Etxebizitza salgai S. Andres auzoan**. 58 m2. Guztiz berriztua. Egoera ezinhobean. Deitu 77 06 82 tfnora. Leiregatik galdetu.
- **Zaragozan pisu bat osatzeko** pertsona bat behar dugu. Tfnoak: 79 52 97 edo 75 19 98.

Lana

- **Reflexologoa behar da**, 28 urtetik gorakoa, taldeetan lan egiteko. Tfnoa: 88 43 40. Goizez.
- **Zuberotar batek frantsesezko klase partikularrak** ematen ditu (Frantzia eta Hizkuntz Eskola Ofizialean diplomatua. Otorduetan deitu. 79 20 24. Renee.
- **Inork egiten ez dituen konponketa horiek nik egin ditzaket**. Konponketak: persianak, armairuak, aparailuen erreparazio txikiak e.a. Montaiak: apalak, tendereteak, kortinendako rielak e.a. Deitu 79 80 25 tfnora. Iñaki.
- **Neska batek lan egin edo umeak zainduko lituzke**. Tfnoa: 79 82 98. Monica.
- **Neska euskaldun eta esperientziaduna** prest haurrak edo pertsona nagusiak asteburuetan zaintzeko. Egunez zein gauetz. Tfnoa: 79 28 30. May.
- **Andre euskalduna prest** etxeko lanak egin, umeak, gaiso edo pertsona nagusiak zaintzeko. Tfnoa: 79 07 73.
- **Emakume esperientziadunak, etxeko lanak** egin edota umeak zainduko lituzke. M^a Karmen. Tfnoa: 79 60 18.
- **Esperientziadun neskak ingelesezko klaseak** emango lituzke. Talde txikiak. Dei egin tfno honetara: 79 08 00.
- **Ekonomia eta Enpresa** Zientziak egindako neskak klase partikularrak ematen ditu: kontabilitatea, matematika, euskera, ingelesa... Tfnoa: 79 26 93. Nerea.
- **O.H.O. ko klaseak ematen dira**. Tfnoa: 79 88 04. Eli. Arratsaldeko 3etatik aurrera.

Salerosketak

- **Trabesiako eskia egiteko** bigarren eskuko materiala erosiko nuke (eskiak, botak...) Tfnoa: 79 08 23.
- **Opel Kadett GSI 2.0 SS-AF salgai**. Primeran. Prezio ona. Tfnoa: 79 97 48. Angel.
- **Garaje bat salgai** dago Aretxabaletan. Tfnoa: 79 29 19.
- **Elur txakurkumeak (Siberian-joski) salgai**. Oso arraza onekoak. Prezio onean. Tfno: 79 57 03.

Denetarik

- **Astero Gasteizera joateko kotxe** baten bila nabil. Goizeko 8,30etarako. Tfnoa: 79 40 71. Arantxa.
- **Malagan, zuri zerbitzua emateko arrasatearrrak** ZEUS HOTELean. Tfnoa: 952 31 72 00. M^a Carmen eta Iban.
- **San Judas Tadeori bederatziruena**, Jesusen Bihotz Santua izan bedi maitatua, aintziatua eta babestua mundu guztian orain eta beti. Jesusen Bihotza otoiitz gure alde. San Judas etzaita daudenei laguntzen diezuna otoiitz gure alde. Egizu otoiitz hau bederatziru egunez eta zortzigarrenean argitaratzea atgindu. Eragin handikoa da; izan ezazu fede eta mirariak ikusiko dituzu... K. A.
- **Maritxu biharamunean nere trajearen txaketak** kalean gelditzea erabaki zuen barruan etxeko giltzak zituela. Aurkitu duenak deitu dezala 79 33 29 tfnora. Lobaton.

Aste Gazte

Bekak

- 93-94 ikasturtean unibertsitate mailakoak ez diren ikasketak burutzeko bekak (OHO, BBB, UBI, LH...). Epea: urriak 22.
- Hezkuntzari aplikatutako Informazio Teknologia arloan prestatutzeko bekak. 89 urtetik aurrera diplomatua nahiz lizentziatu direnei zuzenduak. Epea: azaroak 2.
- Industri injinari eta beste zenbait lizentziaturik zuzendutako ikerketa bekak. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafa-

rraoko Industri Injinari Eskola Ofizialeak deituak. Epea: azaroak 5.

Ikastaroak

- Alboka ikastaroa, hastapena eta II. maila. Urritik maiatzera, larunbat goizez. Matrikula 2000 PTA. Izena emateko azken eguna, urriak 22.
- Urtxintxa Eskolak antolatutako ikastaroak: a) aisialdirako zuzendari ikastaroa, b) heziketa sexuala eta sendi bide-

raketarako monitorea, c) gazteen dinamizaziorako ikastaroa, d) ikastaro monografikoak. Matrikula epea: urriaren 20ra arte.

Ibilaldiak

- Urriaren 23an Pagoeta Parke Naturala ezagutzeko ibilaldi gidatua.

Lehiaketak

- "Gazteak martxan" Arrasateko IV. Argazki Lehiaketa. 2. maila: a) Deba Garaiko 14-20 urte bitarteko gazteak. b) 21-35 edozein. Zuribeltz nahiz koloretan. Epea: urriak 29.

"Zinemako dinosauro zaharrek gurutzada bat hasi dute berrikuntzak egin nahi dituzten gazteen aurka".

KARRA ELEJALDE AKTOREAK DEIAN




Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65

Z E R N A H I A G O ?

Sole Santa Cristina

KIF dendakoa

- **Jotzen duzu instrumenturik?** Ez.
- **Zure horoskopo seinua?** Kaprikornio.
- **Nondik dakartzazue dendako gauzak?** India, Guatemala, Mejiko eta Txinatik.
- **Daukazuen gauzarik garestiena?** 60.000 PTako tapiz bat.
- **Urrea edo zilarra, zer nahiago?** Zilarra.
- **Edari bat?** Wiskia.
- **Zerbaiti beldurrarik badiozu?** Ez.
- **Pijama edo kamisoi?** Erropa gabe egiten dut lo.
- **Non gustatuko litzaizuke bizi izatea?** Hemen gustora nago.
- **Joaten zara mezetara?** Ez.
- **Negar asko egiten duzu?** Orain ez, lehen bai.
- **Zein oinetako zenbaki duzu?** 38a.
- **Mutilak, ile luzez edo motzez?** Segun eta zein mutil den.
- **Liburu bat?** "El Hobbit".
- **Igertzen duzu krisia dendan?** Orainarte ez.
- **Ikusi duzun azken filmea?** "El fugitivo", oso ona da.
- **Ikusi duzun azken kontzertua?** Mike Oldfield, Bilbon.
- **Erretzen duzu?** Bai, Winston.
- **Zein jende etortzen da dendara?** Denetatik, eta harritu egiten nau.
- **Kolonia bat?** "Eau de Rochas".
- **Erosi duzun azken jantzia?** Soineko bat Marruecos-en.
- **Erloju digitalak edo orratzezkoak?** Orratzezkoak.
- **Esaidazu sekretu bat:** Esaten badizut ez da sekretua izango!



BERTSOAK

Ardi probetxosoa Uribarrin

ARRASATE Pressetik
deza ten ikasi,
uste dutenez hala
lukela merezi;
ardi baten azaña
nai adierazi:
amar ilabetean
lau ume egin da azi,
Euskadin ez ote da
izango nagusi?

Igaz San Andresetan
bi bildots egiña,
aurten San Migeletan
berdin alajaiña,
ezta nolanaikoa
bere etekiña:
zalantzik eztagona
probetxo bikaña
beraz izanalean
animali piña.

JOXE MANUEL ARRIOLA



URONDO

elektrizitatea

- | | |
|------------------------|----------------------|
| * Elektragaiak | * Argiztapena |
| * Instalazioak | * Bobinaketak |
| * Automatismoak | * Proiektuak |

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa


Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE

• ESAERA ZAHARRA •

*“Gutxi ikasia
beti jakintsu.”*

• JEROGLIFIKOA •



Hil ez dena

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7
8					9	
10						
11				12	13	
14			15	16		
17		18				
19				20		

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Mendi izena duen Arrasateko kalea. 8. Amodio. 10. Labankor. 11. Oleazeo familiako zuhaiska. 12. Eguzkiaren jaingo egiptiar. 14. (Ald.) Gipuzkoako udala bateko. 17. Dei-hitza. Txo, itsasaldean. 18. Izoztu. 19. Kikara. 20. (Ald.) Juramentu.

Bertikalak 1. Buru gain urdina duen txoria. 2. Aski. 3. Errekuntza motoreko pieza. 4. 2. hilabetea. 5. Erlojuaren 2. zaratatxoa. 6. Erabat. 7. Txar ez dena. 9. Urrun. 13. (Ald.) Ziza. 15. (Ald.) Bizkaiko udala. 16. Oinaze.

• HOROSKOPOA •

Aries Ohean astebeteko deskantsua hartzea ez litzaizuke gaizki etorriko.

Taurus Autoa gidatzen baduzu istripu larri bat izateko arriskuan zaude.

Gemini Iratzargailu berri bat erosi goiztan garaiz esnatu zaitezten.

Cancer Ordua da Maritxu Kajoiko traje edo soinekoa datorren urterarte gordetzeko.

Leo Bost mila pezeta tokatuko zaizkizu loterian, jokaten baldin baduzu.

Virgo Bronkitisa harrapatu eta hilabetean etxetik irten gabe egon beharko duzu.

Libra Oraintxe duzu aukera pertsona horri dena aurpegira esateko.

Scorpio Eskutitz anonimoak izan arren, gauza onak jar ditzakete, baina ez denak sinistu.

Sagitaris Hanka puskatzearen errua zurea besterik ez zen izan, ez inori kulparik bota.

Capricorn Ehiza garaia ere bada eta kontuz ibili beharko duzu, eskopetak ez dira jolasteko eta.

Aquarius Sekula baino nagiago zaude eta hori ez da ona zure gorputzerako.


Piscis Hainbeste abesten duzu eta hain gaizki... uste dut zuk duzula euria egitearen errua.

**‘CARFRA’ SUKALDE
ALTZARIAK
5 URTETAKO
GARANTIAZ**

**ELEKTROGAILUTAN
MARKA GUZTIAK**

**ARMAIRU
ENPOTRATUAK
ISPILU-ATE
KORRIGARRIEKIN**

**BARNE ETA
KANPOKO ATEAK**



Vanesa



ERAKUSKETA
Legarre pabiloia z/g
Gipuzkoa Etorbidea
Tfnoa: 79 01 92
ARRASATE

DeLonghi
marka
italiarraren
banatzaile
ofiziala

ESTIBALIZ SAN JOSEREN GOMENDIOA



Estibaliz naturazalea da, eta duela gutxi bisitatu duen Parke Natural bat gomendatu nahi digu aste honetan: Cabarceno-ko Parke Naturala. Santander hiriburutik 7 kilometrotara dago, era guztietako animalia basatiak aske ikusteko aukera. "Elefanteak, tximinoak, tigreak... parkea naturaren erdian, paisaia ikusgarriekin eta dena ondo zainduta, garbi. Jendeak errespetatu egiten du". Egunpasa joateko leku egokia, etxetik eramanda edo bertako jate-xean bazkaltzeko modua ere badago.

PROGRAMAZIOA



17 Igandea

10.00 aldera
Mondragol. Itxaro Zubillagak aurkeztua.

18 Astelehena

1.35etan
Mondragol saioaren errepikapena.
9.30etan
Mondrasport
10.00tan
Gaueko pelikula: "Aingeruaren bihotza"

19 Asteartea

1.35etan
Mondrasport saioaren errepikapena.
9.30etan
ATBketan lehiaketa.
10.00etan
Gaueko pelikula: "Amadeus"

20 Asteazkena

1.35etan
ATBketan lehiaketaren errepikapena.
9.30etan
Tertulixan. Koldo Rodrigez-ek zuzendutako programa.
10.00etan
Gaueko pelikula: "Asterix Britainian"


21 Osteguna

1.35etan
Tertulixan-en errepikapena.
9.30etan
Bakarka. Gonbidatua: Bernardo Atxaga idazlea.
10.00etan
Gaueko Zinea: "Lurralde Txarrak"

22 Ostirala

1.35
Bakarka saioaren errepikapena.
9.30etan
"Astebete". Mikel Irizarren es-
kutik, asteko berri sonatuenak az-
tergai.
10.00etan
Gaueko Zinea: "Behiak"

KOMIKIA



Txifis

SOLUZIOAK

Biziduna.

JEROGLIKOA

Urrut. 13. Zuz. 15. Ea. 16. Min.
Biet. 4. Otsaila. 5. Tak. 6. Oso. 7. Om. 9.
Bertikalak: 1. Amilox. 2. Nahikoa. 3.
17. To. 18. Letiu. 19. Kata. 20. Zin.
10. Iteskor. 11. Lila. 12. Ra. 14. Zumaiako.
Horizontalak: 1. Amboto. 8. Matasun.

GURUTZEGRAMA

ARRASATE
PRESS
HARPIDETZAK



77 05 65

Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 79 87 62

Hilbera
kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE

ARTOLA
KOMERTZIALA

Zerkaosteta, 3
Tfnoa: 79 14 40
ARRASATE



**10 urte, egunez egun,
Arrasate euskalduntzen!**

lema horrekin ospatuko diren
ekitaldietan **parte hartzera**
animetan zaitugu.

Beste batzuen artean:

- **Azaroak 6:** Amaia antzokian "Logalea zeukan ekilibristaren kasua" Maskaradaren antzezlan.
- **Azaroak 13:** Kiroldegian "ARRASATE EUSKALDUNA" herri bazkaria.